

JOIE





1906eko abendoaren 12an, Donamartiri Haixtoiko eiheran, Josep Etxagarai, Joie, sortu zen.



Gazte zelarik, iratzetan ari zela aitarekin, segaz harri bat kausitu zuen eta zilo baterat erorarazi. Beste harri bat botatu zuen zilorat, leizearen barnatasunaren neurtzeko. Guti gora behera berrogeita hamar metro barna zela ohartu zen.



Leizera jausteko soka baten xeka joan zen etxerat. Amak ez zuen leizerat jausterat utzi nahi lanjerosegia zelakoan. Joie aitarekin joan zen.



Jautsi zen eta leizearen edertasunaz harritu !




Ondoko egunetan, beste jende batzuk ere jautsi ziren zilorat eta gizon lodi bat kokaturik gelditu omen zen, behar ukan zuten kanporat tiratu.



Handik laster, Izturitzeko pestetan, Joiek Mari ezagutu zuten, eta amorostu ziren. Ezkondu ziren eta Mari haurdun gertatu zen.

1940an, elizako ezkiek zeinia jo zuten, gazte guziak gerlarat deituak ziren, Joie barne.







Alemanek Joie preso hartu zuten.
Marik ñiña galdu zuen.
Mari eta Joiek elgarri gutunak idazten
zizkioten.



Alemanak Donamartirin gaindi ere ibilki
ziren eta Mariren sukaldean sukaldatzen
ere !
Ioiek harpetik etxerat ekarri errinozero
buru, untzi eta beste hartu zituzten,
hitzemanez Mariri, Joie trukean libratuko
zutela. Gezurra !!



Gerla bururatzerat ari zela, Amerikanoek
Alemania bonbardatu zuten, eta Joie
lehergailu batek harrapaturik hil zen
presondegian.



Joieren preso lagunak, Daxarrik, zion
jakinarazi Mariri.
Gerla bukatu zen, ainitz izan ziren Joie
bezala, hil zirenak gerla hortan !

JOIE pastoralala

Izturitzeko plazan
2015eko ekainaren 13an
goizeko 11 orenetan

Arberoa ikastolako
haurrek emanik